



2015EKO URTARRILAREN 9KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren bederatzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2014ko abenduaren 5ean eta abenduaren 19an egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 104 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA LAU MILA ZAZPEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHAZPI EURO ETA ZENTIMO BAT (24.771,01 €)etakoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- MEANDRO EREMUAN HIRIKO BARATZEN PROIEKTUAREN ESLEIPENA.-

Alkatetzak, 2014ko azaroaren 21ean emandako ebazpen bidez, 21 H.J.A. –Amebi-Kanpandegi-Meandroa– hirigintza eremuko "Meandroko eremuan hiriko baratzen Proiektuko" exekuzio obra lanak lehiaketa publiko eta iragarpenik gabeko negoziatutako prozedura bidez esleitzeko kontratazio prozedura hastea ebatzi zuen, Baldintza Teknikoak eta Berariazko Klausula Administratiboen Pleguak onartzea eta eskeintza aurkez zezaten CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A., SASOI ERAIKUNTZAK S.L., MIGUEL IMAZ S.A., ALTUNA ERAIKUNTZAK S.L. eta IPARRAGIRRE ERAIKUNTZAK S.L. enpresei gonbidapena egitea.

Bost enprese horietatik hiruk aurkeztu dute eskaintza: MIGUEL IMAZ, S.A., CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A. eta SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. eta eskaintza horiek aztertu ondoren kontratazio mahaiak CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A.ren aldeko esleipen proposamena luzatu du. CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A.ren eskeintza 51.812,58 gehi B.E.Z. eurokoa da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin "Meandroko eremuan hiriko baratzen Proiektuko" exekuzio obra lanak CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A.ri esleitzea erabakitzen du. Esleipen prezioa BERROGEITA HAMAHA MILA ZORTZIEHUN ETA HAMABI EURO ETA BERROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO gehi B.E.Z. da.



IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]